



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025eko abenduaren 2a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>


Oihane Amantegi

(Zornotza, 1985)

Oihane Amantegi Uriarte antropologoa, itzultzailea eta idazlea da.

Gizarte eta kultur antropologian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean, diziplina bereko ikasketa aurreratuen masterra egin zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutensean, diskurtsoaren analisi kritikoan sakonduz.

Cayo Hueso



Floridatik dingilizka geratutako azken uhartea da Cayo Hueso, Antillen erdian igeri, Kubaren eta kontinentearen erdibidean. Hantxe bizi da, otarrain-arrantzan, istorio hau kontatzen duen kapitain zaharra, eta hantxe agertuko dira, ezustean, nobelaren gainerako protagonistak: Virgil musika kritikaria aurrea eta Maudey jazz kantaria gero, bere bandarekin. Aurreko liburuan (Ibaiertzeko ipuina) erakutsitako nortasuna eta dotorezia nabarmenak dira honakoan ere: maitemin istorio betikoaren bariazio jolasak, ñabarduraz betetako estiloa, film zahar bateko dekoratua dirudien jokalekua, belarrian gozo sartu eta bertan itsasten den musikaren oihartzuna? Bere laburrean gehiagoren

gosez uzten gaituen testu perfektu bat.

Oihane Amantegiren argitalpenak

Ibaiertzeko ipuina (2020) **N AMA**

Cayo Hueso (2023) **N AMA**

Kritikak esandakoak

“Zenbait libururen tituluak leku urrunetara eramaten gaituzte eta horixe gertatu zait Oihane Amantegiren “Cayo Hueso” izeneko bigarren eleberriarekin. Hiru elementuk giro bereziaz hornitzen dute kontakizuna. Alde batetik, musikak eta tabakoak protagonista nagusiak lotzen dituzte, Virgil, musika kritikaria, eta Maudey, jazz abeslaria, zigarroa eskuan topatzen baitira. Beste aldetik, eguraldia, hango hezetasunak eta berotasunak funtzionatzen baitute desiraren metafora gisa. Osagai horien inguruan ardazten da gai klasikoa: gizon eta emakumeen arteko harremanak, kapitain zahar batek kontatuta (bere ikuspuntutik aurkezten da istorioa). Virgil eta Maudey definitzean, Amantegi galtzaileen iruditeriaz baliatu dela antzeman daiteke: isilak, iragan misterioitsu baten zamaz bidaiatzen dutenak, zerbaitetik ihes egin nahian-edo, eta, behin gaua elkarrekin pasatu ondoren, bizitza errealearen antzera, banantzen dira maitaleak. Hots, zergatik eta nola hasi diren ez dakigun desiraren aferak, premiazko zaien indar baten menpean. Alde horretatik, topikoetan erortzeko arriskua igartzen dugu momentu batzuetan, izan ere, Maudeyk “femme fatale” dirudi, Virgil eta bere inguruko guztiak, Solomon —jazz bandako musikaria—, kapitain zaharra, haurrak... harekiko liluramenduari eutsi ezinik baitaude.

Arestian aipatu bezala, giro desberdinak sortzeko gaitasun handia erakusten du idazleak tonu poetikoa deskribapen zein hausnarketetan nabarmentzen delarik. Amantegik hizkuntzaren erabilera atsegin hartzen du metafora ederren bitartez —baleena, esaterako—. Dena dela, irakurleari datuak falta zaizkio protagonisten arrazoibideak hobeto konprenitzeko. Halaber, eleberria hiru aktotan egituratzeak antzezlan baten aurrean egotearen zirrara sor dezake, non pertsonaien kanpoko mugimenduak besterik ez dugun ikusten. Eta adi amaierarekin.”

Paloma Rodriguez-Miñambres / El Diario Vasco, 2023-11-25

“ ...

Cayo Hueso jazz doinuek bustitzen dute, eta alkoholak eta tropikoetako ekaitzek. Floridako penintsulatik gertu urgaineratzen diren irla txikietako batean kokatzen da eleberria, XX. mendeko lehen erdian, ez dakigu zehazki noiz. Maudey eta Virgil dira protagonistak, jazz abeslaria lehena, musika kritikaria bigarrena. Uda partean egiten dute topo bi pertsonaiek Cayo Hueson, otarrain denboraldia hastearekin bat. Zoriak gidatutako enkontrua da, beraz, eleberriak kontatzen duena, harreman iheskorrek izan dezaketen intentsitatea, instant batean izan dezaketen ezinbestekotasuna eta ondorengo ahanztura azaltzen duena.

Marinel zahar bat da eleberriko narratzailea, uharteko biztanlea eta behatzaile fina, eta beraz, haren perspektibatik eta ahotsetik kontatzen da istorioa. Arrantzalea irakurleari zuzentzen zaio, eta maitasun

aferaren testigu soil gisa aurkezten du bere burua, baina narratzaile orojakilearen papera betetzen amaitzen du, pertsonaien sentimendu eta pentsamenduak argitzen baititu bere errelatoan.

Narratzailearen eta irakurlearen artean eraikitzen den harreman-joko horrekin, ipuin luze batek izan dezakeen egituraren traza ematen dio idazleak liburuari. Marinel zaharraren kontakizunak deskribapen poetikoak eta hausnarketa pertsonalak eransten dizkio kontakizunari. Oro har, atal laburretan banatzen bada ere, estiloak jario itxura hartzen du, erritmoa ongi kontrolatzen duen idazkera dauka Amantegik.

Istorio sinplea da, gertaera eta ekintza urrikoa: bi pertsonak gau batean bat egin ondoren, harreman horrek ez du jarraitzen. Interesgarria da idazlearen hautua, eta arreta beste elementu batzuetan jartzeko aukera ematen dio horrek: estiloan, egiturari, ambientazioan. Alabaina, zenbait unetan hari nagusia ahulegia ez ote zen iruditu zait, bereziki eleberriaren amaiera sostengatzeko, neskarentzat hasieratik gau bateko desira pultsua baino ez denak, gerora horrenbeste pentsamendu eta itzulinguru eragiten ahal dizkion pentsatzean. Alde horretatik, Maudeyren mututasuna, gaixotasunetik at ere, aipagarria da, irakurleak ez baitu haren hitzik jasotzen, eta beraz, hari enkontruak sentiarazitakoa ulertzen zailagoa da Virgilen kasuan baino.

Ziur aski, idazlearen bertute handienetako bat da unibertso literarioak zertzelada gutxirekin eraikitzea. Bere bi eleberriek elementu gutxi behar dituzte irakurlea hasieratik testuinguruan kokatzeko. Kasu honetan, aski da otarrain sasoia aipatzea herri arrantzale txiki bat irudikatzeko, tropikoetako giro heze eta beroa desiraren eta nahi eta ezinen joan etorriak adierazteko, eta Mariaren ostalua eta jazz kontzertuak udako iluntzeetan pizten diren askatasun printzak gogoratzeko. Giroei tankera zorrotzasunez sumatzen abila da Amantegi, eta bere mikro unibertsoen bidez beste garai eta ingurune batzuetara bidaiatzeko aukera ematen dio irakurleari."

Irati Majuelo / Berria, 2023-06-04

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Oihane_Amantegi

Txalaparta

<https://www.txalaparta.eus/es/libros/cayo-hueso>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8862>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8824>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8823>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8794>